



ETAren armagabetzea gizarte zibilaren esku

TESTUA ETA ARGAZKIA:

Lander Arbelaiz Mixelena

@larbelaiz

“Bai, armagabetzearen prozesu hori bururaino eramango dugu. Atzotik badakigu gure eskuetan dagoela. Guri doakigu behar diren bermeak sortzea eta armagabetze horrekin gatazka honek sortu dituen ondorio guztiei aterabidea ematea”, adierazi du larunbatean Bake Bidea mugimenduko presidente Anaiz Funosasek Baionan egindako manifestazioan.

4.000 lagun bildu ditu “bakearen alde, bakearen artisauak askatu!” lelopean egindako manifestazioak. Hauek dira atxilotuak: Jean Noel Etxeberri Txetx, Mixel Berhokoirigoin, Beatrice Molle-Haran, Mixel Bergouignan eta Stephane Etxegarai Etxe.

Astelehen goizean eraman dituzte Parisera eta asteartean igaro dira epailearen aurretik. Astelehenean Baionan deitu dituzte Euskal Herri osoko sindikatu, eragile sozial eta hautetsiak gaiari jarraipena emateko. Donibane Garazin eta Luhuson elkarretaratzeak egin dituzte, sarean milaka sinadura bildu dituzte atxilotuen askatasuna eskatuz eta eragile ugari eman dute atxikimendua, tartean Frantziako Greenpeace-k, José

Bové eurodiputatu eta sindikalistak eta Kortsikako presidente Gilles Simeonik.

Gizarte zibilaren ekimena

Atxilotuak ETAren eta gizarte zibilaren arteko armagabetze operazio batean parte hartzen ari ziren atxilotu zituzten unean. Berhokoirigoinek, Tubianak eta Txetx-ek egin zioten proposamena erakunde armatuari eta udazkenean hainbat gutun trukatu ostean, ETAk onartu egin zuen gizarte zibilak armagabetzearen parte hartzeko proposamena.

Espainiako eta Frantziako agintariak adierazitakoaren arabera, ETAk armak desagiteko “propaganda operazioa desegin dute atxilotuta hauekin”. Armak frogatzea erabiltzeko aukera oztopatzea leporatzen diete atxilotutakoek eta baita armetatik frogak ezabatzeko saioa egin izana ere.

Michel Tubiana Frantziako Giza Eskubideen Ligako ohorezko lehendakaria ere Luhuson atxilotutakoekin egotekoa zen armen suntsitze operazioan. “Gobernuak abisatuak genituen armen entregara eginen genuela. Prokuradoreari aukera emanen genion hemendik aste batzuetara arma horiek deuseztatuta aurkitzeko”, adierazi du Tubianak Berria egunkariari emandako elkarrizketan.

Gaiak soka luzea ekarriko du.

EKONOMIAREN TALAIAN

Nazioarteko Diru Funtsaren eraso



Juan Mari Arregi

Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) berriaz erakutsi du zeinen zerbitzura dagoen: Kapitala, banku handiak eta multinazionalak. Hala ikus daiteke Espainiako Estatuari buruz kalera-tutako urteroko txostenean, beti bezala eraso antisoziala proposatzen baitu bertan. Zergapekoaren kontra egin du beste behin, 5.500 milioi euroko murrizketak inposatuz, hau da, BPGren %0,5. Horretarako, BEZa handitzea eskatu du, erregaien gaineko zerga bereziak ere bai, eta hezkuntzan eta osasungintzan gastuak errebisatu behar direla dio, baita lan malgutasun gehiago eduki ere. Hori guztia, “defizit publikoa eta zorra pixkanaka jaitea” lortzeko.

NDFk ez du ezer esaten gastu militarra errebisatu eta murrizteaz, nahiz eta Espainiako Estatuan 2017an 6.000 milioi eurotik 8.000 milioitara igaro nahi den aurrekontua alor horretan, %33ko igoera hain zuzen. NDFri berdin zaio kiebran dauden autopistak nazionalizatzea Estatuak –egiaz bere lagunak salbatzeko delako–, horrek 6.000 milioi euroko kostua izango duen arren, aurretik bankuak erreskatatzea 40.000 milioi euro kosta zitzaigun bezala.

Tristeia eta tamalgarria da NDFren eraso antisozial horren aurrean ez egotea herritarren erantzun irmorik. Horren arrazoia eta erantzukizunaren pisua ezker politiko, sozial eta sindikalaren egoera larrian jarri behar dugu. Sozialdemokraziak menperaturik dago, bananduta, desagertuta, eta okerrago dena, Kapitalaren aurrean alternatiba barik. Bidea libre utzi dute jendearen bizkarretik neurri antisozialak inposatzeko. Beharrezkoa eta premiazkoa da ezker horrek hausnarketa sakona egitea eta jokabide erradikal eta solidarioagoa hartzea. Gutxienez NDF eta Kapitala geldiarazteko.